

HITZA



Hondarribikoa da irudia. Udaltzainek parke baterako sarbidea zintekin moztu dute. Beharrezkoak dira gisa honetako debekuak birusari aurre egiteko. REBEKA RUIZ

Inork espero ez zuen krisia

Koronabirusak Bidasoko eta Oarsoaldeko herrien egunerokoa zeharo baldintzatu du • Egun gutxiren buruan, behin ere suertatu ez diren egoerei aurre egin diete herritarrek, pazientzia handiarekin // 2-7

Oiartzun Mirari Martiarenak 'Bakean dagoena bakean utzi' lanaren arrakastaren gakoak eman ditu // 10-11

-HEGOI BELATEGI

Ziur asko jende gehienak koronabirusarena mehatxua seriotzat hartu zuen, taberneketan eta komertzioek itxi beharko zutelako jakitean. Egun gutxi batzuetan, Covid-19 gaitza, albistegietako urruneko gai izatetik, biztanleria osoaren bizitzetara eragiten dion gaia izatera igaro zen. Ez zen, ordea, ezustekoa izan Fernan Cuellar Errenteria-Oreretako De Cyne Reyna tabernako jabearentzat, «Italia-ko ereduak gertu izanda eta koronabirusa Euskal Herrian hedatzen ari zela ikusita, argi genuen itxiera denbora kontua baino ez zela». Taberna aisialdirako topagunea da Euskal Herriarentzat, kale bat giroz bete dezakeen mugarrira. Orain, ordea, itxita daude eta ezezagunak badira ere, ondorio ekonomiko eta sozialak izango ditu langile eta bezeroentzat.

Ostalari askoren konpromisoa nabarmentzeko da, kasu gehienetan, denen osasuna haien interes ekonomikoen gainetik jarri baitute. Errenterian tabernari asko dagoeneko prebentzio neurriak hartutakoak ziren, eta Cuellar kide den Ostari Errenteriako Ostalaritza Elkarteak ostiralean bildu zen, Iñigo Urkullu lehendakariak itxiera aginduren berri eman baino lehen: «Egoeraren larritasuna ikusita, pertsianak jaistea egin genezakeen ekarpenik onena zela erabaki genuen; aginduaren zain baino ez geunden».

Lehentasuna: soldatak

Bada, atek itxi ditu De Cyne Reinak Oarso Bidasoko beste taberneketan bezala. Gutxienez bi astez, baina jabea ziur da «uste baino luzeago» iraungo duela itxiera aginduak. Neurria beharrezkoa dela badaki Cuellarrek, baina beste ostalari guztiek bezala, «eta orain zer?» galdetzen dio bere buruari. Bost langilek osatzen dute De Cyne Reynako plantilla, hortaz, hilabetero bost soldata dira ordaindu behar direnak. Tabernariak ez du zantzaririk, ordea: «Lanpostu guztiak mantentzea erabateko lehentasuna da». Errealitatea da, ordea, ez dakiela nola egingo duen, orain arte ez baitute inongo adierazpen zuzenik jaso, «dakigun guztia, iturri ofizialek hedabideetan esandakoa da». Lehen urratsa neurri sanitarioak hartzea izan da, eta hartu dira. Komenigarria da, ordea, erakundeak iragarritako laguntzak zehaztea, eta azkar iristea kaltetuei, krisi sanitarioa ez



Hondarribiko Gipuzkoa plazan kokatuta dago Palacete hotela. HITZA

Ostalariek Covid-19ari aurre egiteko jarrera oso arduratsua izan dute, eta gehienek begi onez ikusi dituzte hartutako neurriak. Baina ohartarazi dute laguntzak eta kalte-ordainak azkar eman ezean, lanpostu asko kolokan egon daitezkeela.

Zalantzez betetako garaia ostalariarentzat

dadin kronifikatu krisi ekonomiko batean.

Espainiako Estatuak 200.000 milioi euroko inbertsioa egingo duela jakinarazi zuen asteartean, Eusko Jaurlaritzak 1.000 milioi, eta udal askok ere laguntzak iragarri dituzte. Are gehiago, Errenteriako Udalak lehen unetik ostalariekiko izan duen «jarrera eta gertutasuna» eskertu du Cuellarrek. Hala ere, egoera gehiago oker ez dadin, neurriak lehenbailehen hartzea eskatu du, haiek ezingo baitute luzarozan horrela irau: «Hamabost egunetz eutsi dezakegu. Hortik aurrera kalte ordainik ez badugu jasotzen, eta babesik ez badugu, Aldi Baterako Lan Erregulazio

Espediente egin beharko genuke» esan du, kezkatuta. Etsipenez hitz egin du tabernariak, ez duelako oso argi nora jo, eta jakitun delako hainbat sektoretako langileak egoera berean daudela. Cuellarrena, ostalari gehien testigantza bera da. Inork ez zuen egoera hau nahi; tabernariak ere lagundu nahi dute ondorio ekonomikoak gutxitzen. Bi gauza behar dituzte besterik ez: bermeak eta balia bideak.

Hotelen ziurgabetasuna

Tabernariak mila zalantza badiutuzte, zer esanik ez hoteletako langileek. Hondarribiko Palacete hoteleko kudeatzaile den Maddi Etxebestek ez du argi ere

ez irekita ala itxita mantendu behar duten hotela, «ez genekien hotela ostalaritza lokalen taldean sartzen zen, ala beharrezko zerbitzu gisa hartu behar zen». Gaur-gaurkoz, eta alarma egoerak irau arte —martxoaren 27a, testu hau idatzi den unean— itxita dago Palacete, ez inork esan dielako, baizik eta ardura duen erabaki dutelako, «osausun publikoarekiko zintzo jokatzea erabaki dugu. Bezeroak bertan kutsa litezke eta haiek gero beste batzuk kutsatu».

Tabernei ez bezala, asteak dira hotelak, pentsioak eta gainontzeko ostalari koronabirusaren ondorioak nabaritzen hasi zirela. Izuak turismoari zuzenean

eragiten dio, bereziki hoteletan egindako erreserbei. Zentzuzkoa da, hein batean, eta Etxebestek esan bezala, jendearen joan-etorriekin bukatzea, hotel batek gune kutsakorra izateko arriskua baitu. Horrez gain, egungo egoeran hotelak irekita jarraitzea ulergaitza da, eskaintza tu-

Ostari elkarteak ostiralean batzartu egin zen, itxieraren gaiari heltzeko

Bi sektoreetan laguntzak eman ezean, lanpostu asko kolokan egon litezke

Hondarribiko hotel eta ostalari ez diete ofizialki eskatu atek ireteko

ristikoak etenda daudelako, «mugimenduak murriztuta badaude, ekintzarik ez bada antolatzen eta taberna zein jatetxeak itxita badaude, zer egingo dute turistek Hondarribian?», galdegin du Palacete hoteleko ardura duen Maddi Etxebestek. Galdera beste zentzuan ere egin liteke: zer zentzu du hotel bat irekita mantentzea ez bada bezeroarik jasoko?

Gerta liteke turista ausart —ala arduragabe— batek une honetan turismoa egitea erabakitzea, baina ziur asko hotelak irekita mantendu badira, «gerta litezkeen beharrei aurre egiteko» da, Etxebestek aburuz. Eusko Jaurlaritzak hainbatetan aipatu du, larrialdi sanitarioak eskumena ematen diela hotelak moldatzeko gaixoak har ditzaten, ospitaleek gainezka egiten badute. Baina ez dirudi une honetan egoera hain larria denik, hemen behintzat. Gainera, ospitaletan oheak ez bezala, Gipuzkoan hotelak soberan daude.

Hotelak irekita mantentzea, bezeroarik ez bada iristen, kalte ekonomikoaren baliokide da, bereziki Palacete bezalako hotel txikiarentzat. Eskuak lotuta dituztela sentitzen dute, ez baitakite nondik jo zehazki. Ziurgabetasun horrek jomugan ditu Palacete bost langileak, ezinezkoa baita langileak mantentzea lanik ez badago: «Badakigu denok kolpe galanta hartuko dugula, baina kolpea gutxitzen ahaleginduko gara». Neurriak hartu eta laguntzak azkar ematen badira, udan egoerari buelta emateko moduan izango direla uste Mad-di Etxebestek.



DBHko ikasle bat, etxetik lanean. Milaka dira Oarsoaldean eta Bidasoan etxetik ikasten ari diren haur eta nerabeak. HITZA

Honakoa ere ez da erronka makala, egoera larriak molde berriak erabiltzera derrigortu du irakaskuntza. Aste honetan hasi dira eskola ez presentzial horiek.

Ikasgela, motxilan etxera

—I. ZARATE / H. BELATEGI

Pasa den ostirale-tik eskola presentzialak bertan behera gelditu eta etxera bidali zituzten ikasle guztiak. Hilaren 27ra arte hartutako neurria zen berez, koronabirusa ez zabaltzeko, pandemia hedatzea prebenitzeko hartutako neurrietako bat. Baina egoerak okerrera egin duenez, asteazkenean Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak geldialdia mugagabea izatea erabaki zuen. Baimena ematean hasiko dira berri ere klaseak. Argi utzi dute hasieratik Hezkuntza Sailetik zein ikastetxeetatik ere honakoa ez dela oporraldia, eta ondorioz ikasleek prestaketa akademikoa etxean jarraitu behar dutela, irakasleek lagunduta.

Imanol Sorondo Lezo Institutuko zuzendariak, lehenengo egunekin kezka bazuten ere, ondo moldatzen ari direla esan zion HITZA-ri astelehenean: «Ostiralean mezu elektronikoa bidez jakinarazi genien ikasle eta fami-

liei etxeko lanak hainbat plata-forma erabilia egingo genituela, eta erantzuna ona izan da oso». 223 ikasle ari dira bertan. Lezo Institutuaren kasuan, Classroom, Moodle eta Gmail erabiltzen ari dira ikasleei lanak bideratzeko. Eskolak ez dira presentzia-

Lezo Institutuan Moodle, Classroom eta Gmail programak ari dira erabiltzen

Euskarri digitalek mugak dituzte marrazketa bezalako ikasgaietan

lak, baina ordutegi berean jarri dituzte ordenagailu aurrean ikasleak Lezo Institutuaren kasuan, «08:00etan hasten dira, ohiko ordutegian, eta materialak ere ohiko ordutegian mantendu dira. Irakasle bakoitzak bere eskola orduan jarri dizkio zeregina ikasleari, eta horiek aurkezteko epe bat. Ikasleak, egia esan, oso ondo erantzuten ari dira.

14:10ean bukatuko dute, egunero egin ohi duten moduan».

Jakin badakite ez dutela ikasle guztiak etxetik bitarteko horiek aritzeko aukera, eta horretarako ere aurkitu dute irtenbide bat: «Ikasle guztiak ez dute ordenagailua edota wifi konexioa etxean, edota anai-arreba gehiago dira eta denek behar dute gailua. Gurasoetako batzuei ere egokitu zaie etxetik lan egitea. Horiek ikastetxera etorri eta ariketak papereko euskarrian jasotzeko aukera dute». Hori bai, azken hori modu ordenatuan egiten ari direla zehaztu du, «telefonoz deitu eta hitzordua jartzen dugu banaka etor daitezten». Institutura joan behar duten irakasleekin ere horrela jarduten ari dira. Une honetan zuzendaritzako bi kide eta beste laguntza bat ari dira Lezo Institutuan.

Irakasleak ere, ikasten

Ezin da ahaztu egoera hau irakaslegoarentzat ere guztiz berria dela. Finean, haiek telelana zer den ikasten ari dira, ikasleek

telekasteko aukera izan dezaten. Nerea Zapirainek Irungo Pio Baroja institutuko marrazketa irakasle gisa jarduten du, eta ikasleak bezala, haiek ere «egunegun» salbuespenetako egoerara moldatzen ari direla dio. Lehen aste hau «nahiko zaila» izaten ari dela aitortu du, izan ere, euskarri digitalen mugak ezagutzen ari dira. Marrazketa bezalako ikasgai bat modu telematikoa irakasteak, adibidez, zailtasunak ditu, «gai teorikoen nahiko ongi moldatzen gara, baina marrazketa artistikoa online irakastea ez da erraza. Ariketak bidaltzen dizkiegu etxean egin ditzaten, haiek guri berriro bidaltzeko. Baina ez da berdina. Ezin ditugu klaseak gidatu ezta zuzendu ere ez».

Ikastaroak egin badituzte ere, errealitatea da euskarri digitaleko formazioa falta zaiela, eta ondorioz lan karga asko handituko dela. Egoerak, baina, arduraz jokatzea eskatzen du Zapirainen ustez, «gauzak nola dauden ikusita, ez dugu kezkatzeko arrazoirik».

Farmazietako langileak ere lehen lerroan birusaren aurkako borrokan

—HEGOI BELATEGI Pasaia

Egunotan sarritan goraipatzen da osasun arloko langileen jarduna, eta zalantzarik gabe, laudorio guztiak merezi dituzte haiek. Baina beste hainbat sektoretan ere larrialdi egoera hau gertutik bizi dute. Farmazietako langileak krisi honen lehen lerroan daude, eta askotan haiei dagokie herritarrei azalpenak ematea eta lasaitzea.

Egoera «oso serioa» dela ohar-tarazi du Jon Egurrola San Pedroko farmaziako langileak, jende asko kutsatzen ari baita. Langilearen aburuz, gaur-gaurkoz itxaron baino ezin dela egin: «Pasako da, etxean txintxo-txintxo egotea da orain egin dezakegun gauzarik onena». Ospitale eta osasun zentroetako langileak bezala, Egurrola jakitun da Covid-19az kutsatzeko aukera gehiago dituela, «espero dut oso gogor ez jotzea, zorte pixka batekin ez dut kasik nabarrituko».

Kontuz alarmismoarekin

Komunikabideek tentuz jokatu behar dutela nabarmendu du Egurrolak, haien mezuek eragin handia izan dezaketelako jendearen: «Aurreko astean jende ugari etorri zen guregana parazetamol eske, hedabide askok zabaldu zituztelako ibuprofenoa ez zela segurua. Horrelako mezuak jasotzean jende guztia batera etortzen da, sendagai jakin bati erostera eta orduan bai, sendagai hori agortzeko arriskua dago». Funtsezkoa da sendagaiak modu arduratsuan erostea, eta soilik beharrezkoak direnean.

Dena dela, ez dago sendagai eskasiarik emateko arriskurik, ez San Pedron ezta Euskal Herriaren ere. «Sendagai jakin bat agortzen bada lasai egon dadila jendea, izen ezberdineko antzeko sendagaiak eskuragarri izango dituzte beti», adierazi du Egurrolak. Sendagaiak ez diren produktuko sanitarioak erostea, bestalde, zailagoa izango da, datozen egunetan gutxienez bai. Eskularruak, maskarillak eta bereziki eskuak desinfektatzeko gelak ez dira gelditzen farmazien apalatan.

hbelategi@hitza.eus



IKERNE ZARATE

«Egoera iritzi kritikoa eta enpatia lantzeko baliatu behar dugu»

NAROA MARTINEZ SUAREZ PSIKOPEDAGOGOA ETA IRAKASLEA

Osasun larrialdiaren aurrean, haur eta gaztetxoei egia esan behar zaiela dio Naroa Martinez psikopedagogoak, beti ere eskatu ez dituzten detaile morbosoetan sartu gabe.

–IKERNE ZARATE

Erreterria-Orereta

Koronabirusa nola azaldu behar diegu haurrei?

Uste dut guk ere ez dugula informazio gehiegirik, ez dira informazio asko ematen ari, edo nik sentsazio hori dut ez dela informazio guztia iristen. Beraiei sortzen zaizkien egonezin horietatik bideratu behar dugu ematen diegun informazioa, beraien beharrak, beldurak eta jakin-minak erantzutera daukagun informaziotik, eta argi utzita egoera berri bat dela, beraiek bezala guk ez dugula askorik ezagutzen, baina joango garela aurre egiten pizkanaka.

Egia esan behar diegu, beraz. Bai. Horrek ez du esan nahi

beharrezkoak ez diren detaileak ematea, ez badituzte eskatzen. Haurrek eskatzen dute, daukaten gaitasunaren arabera, hortaz, informazio bat eskatzen badigute normalean izaten da prest daudelako erantzuna jasotzeko. Bestela, guk egin dezakeguna da beste galdera baten bidez erantzun: 'Zuk zer uste duzu?'. Askotan beraiek erantzunak badituzte, eta gaitasuna badute. Egia esan behar dugu, ez dakiguna ez dakigula argi utziz eta xehetasun morboso edota beharrezkoak ez direnetan sartu gabe. Egia beti beraien adinera egokituta.

Etxera bidali dituzte ikasleak ikastetxeak itxita, baina ikaske eta prozesuarekin, heziketa-

rekin jarraitu behar dute modu ez presentzialean. Psikopedagoga zara, baina baita irakaslea ere Lehen Hezkuntzan. Nola jardun behar da berarekin etxean egoera berezi honetan?

Egoera berri batean gaudela esan behar diegu, guk ere ez dugula bizi aurretik ez guraso bezala, ez ikasle bezala, ezta irakasle bezala ere. Ez da gaxorik daudenean bezala egun pare bat etxean egotea. Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan ari naiz irakasle 10-11 urtereko haurrekin, eta azaldu nien eskolan momentuz daukagun neurria hau dela, baina luza daitekeela edo eten daitekeela, ez dakigula ezer ziur. Pilak jarri behar ditugu eta ohiture-

kin jarraitu. Egoera berria dela denentzat esan behar diegu, kostatuko zaigula, baina momentuz daukaguna dela. Bizitzan zehar landuta dugu garrantzitsua dela formazio bat izatea, alfabetizatuak egotea, eta erraza da, beraz, egoera berri honetan lanean jarraitu behar dutela ulertaraztea.

Haurrek prebentzio neurriak betetzea zailagoa izaten da?

Nik uste dut errazagoa dela txikiekin helduekin baino. Esaten dugu ez dugula elkar ukitu behar, eta helduak gara lehenenak elkar ukitzen. Beraiek malguagoak dira, eta esaten diegunean gauzak oso serio hartzen dituzte. Elkar laguntzen dute. Ohiturak ongi azalduta lehenengo bi egune-

tan kostatzen zaie denei bezala, baina gero gaitasuna dute eta guk ez dugun malgutasuna. Aprobetxatu behar dugu enpatia lantzeko, iritzi kritikoa lantzeko eta aztertzeke zein informazio ematen diguten, zein ez, eta zergatik, nondik ateratzen duten batzuek etekina eta besteek kaltea... Nik uste dut alderdi pedagogikoa atera behar diegula halako egoerei, eta osasun heziketa egin.

Esan duzu elkar laguntzen dutela. Egungo gizartean nahikoa galduta dagoen komunitate sen hori barneratuagoa dute haurrek?

Ez dakit, gaur egun beraiek bizi dutena ere ez dakit zein gizarte mota den. Talde kon-

tzientzia errazago garatzen dutela uste dut, ordea, eta askotan taldearekin pentsatzen dute; adin batetik aurrera, 5-6 urtetik aurrera, egozentrismoa gainditzen doaz.

Garrantzitsua da nola kontatzen dizkiegun gauzak?

Noski. Autentikoak izan behar dugu, egitik kontaktu behar diegu lasaitasuna mantentzen saiatuta, segurtasun sare bat behar dutelako; baina autentikoak izaten egin behar dugu hori, urduri baldin bagaude urduri gaudela esanez, edota kezkatuta, eta negar egiteko gogoia baldin badugu berdin, beti ere beraien aurrean egoerak gainezka egiten ez digunean. Garrantzitsua da parte hartzaile egitea, azkenean, nola hezten ditugun zer esana dauka nolako helduak izango direnean. Parte hartzen uzten badiegu eta inplikatzeko baditugu autoestimua aldetik oso ondo etorriko zaie.

Ikasleekin ari zara, zein pertzepzio dute koronabirusaren gainean?

Urduri bai, baina ez daude hain larrituta. Ez da denborarik izan ere asko lantzeko. Eskolan, zizutzen beldurrak-eta lantzen aritu bagara ere, oso azkar heldu gara egoera honetara. Egia da eskolan normaltasunean bizi izan dugula, bazuten ezinegona toki guztietan dagoelako, baina ez dut sumatu lekuz kanpoko beldurrik.

Helduak baino hobeto moldatzen dira egoera hauetara?

Bada, ez dakit. Etxean nola bizi dugun asko baldintzatzen du egoera, kontutan izanda ere bakoitzaren izaera. Malguagoak dira, eta uste dut garrantzitsua dela helduaren erreferente hori segurua izatea, ez segurtasun faltsu bat, baina argi esaten bazaie etxe-koak elkarrekin saiatuko garela hau ahalik eta ondoen eramaten, badaukate segurtasun erreferentzia bat, guk ez duguna.

Gurasoei, beraz, edo helduei, lasaitasuna transmitzea dagozkie. Badago errezetarik horretarako?

Ezertarako ez dago errezeta magikorik, ez guraso bezala, ez irakasle gisa. Azkenean bizitzen ari garen honen argibiderik ez dugu ez gurasotasunean, ezta beste arlotan ere, bizitzen ari garen hau berria delako. Konpartitzeko gai izan behar dugu, eta helduek helduon artean gure urduritasu-

nak baretu behar ditugu, hitz eginez, informazio fidagarria maneiatur, eta bakarrik ez egoten saiatu, azkenean, pertsonak izaki sozialak garelako eta segurtasun hori behar dugulako; helduok elkarren artean orekatu behar dugu.

Komunikabideetan ez dago beste hipziderik, nola eragin diezaieke horrek haur eta gazteei? Telebista itzali behar dugu, saihestu behar dugu gaiaz hitz egitea?

Ez nituzke bakarrik utziko informazio hori jasotzen. Gurasoei, helduei, erreferente batekin bai, baina neurri batean. Helduentzat ere ez da gomendagarria saturazio hori. Iritzi kritikoa batekin, ikustekotan, eta bakarrik ez nituzke utziko, haurrak direlako, eta nerabeek edo aurre-nerabe direnek behar dutelako erreferente bat.

Ez bakarrik, ez gehiegizko informaziorik, eta beti ikuspegi kritikoz aztertzen lagunduko dien heldu batekin. Ahal dela guretzat guraso bezala fidagarrienetako den komunikabidetik jaso beharko lukete informazioa.

Helduei zer dagokie?

Ezartzen ari diren neurriak betetzen ari garela erakustea, beraiet betetzen lagundu, eta gero lasaitu. Lasaitzeko modua da esatea ez dela hain gaitxotasun larria biztanleriarentzat oro har, eta hartzen diren neurriak gure nagusiak, eta ahulago daudenak zaintzeko hartzen direla. Lasaitzea dagokigu. Ni heriotzarekin aritzen naiz, eta nire gomentioa da galdetzen badute uneren batean honekin hil gaitzekoan, hor ere egia esatea; probabilitate oso-oso gutxi daudela adin bateraino, baina gaixotasun guztietan bezala konplikatzen bada, eta oso-oso gaixotzen bada, bada inork ez dakiela; gerta daitekeela eta bitartean elkar zaindu behar dugula. Askori pasatzea tokatuko zaigula eta askok ia konaturatu gabe pasako dugula esan behar diegu, eta izan dezaketen beldurra baretu.

Eta helduak, edo arriskua dutenak baldin badituzte inguruan nola jokatu?

Esanez gure esku dagoen guztia egin behar dugula, eta gaitxotuko balira argi utzita beraiet ez dituztela gaixotu, ez dutela errurik horretan. Erantzukizuna kendu behar diegu haur eta gaztetoiei.

izarate@hitza.eus

Konfinamendua ez da dekretuz heldu lantokietara, momentuz

-I. ZARATE

Konfinamenduaren seigarren eguna beteko da gaur, baina konfinamendu hori eguneroko hautsi behar dute, derrigorrean, hamarnaka langilek; batzuek ezinbestekoa delako bere lana gizartearentzat, beste batzuk enpresek ez dutelako erabakirik hartzen, eta gobernuak ez dutelako ezer zehatzik esaten.

Langileen osasuna lehenesteko eskatu dute LAB eta ELA sindikatuek, oinarrikoa ez den jarduera ekonomiko oro bertan behera uzteko, eta LABek zehazki, gogor salatu du ez Osalan, ez INSL, ez Laneko Ikuskaritza ez direla gai izan aktibitatea gelditzeko, kutsatzeko probabilitate larria dagoenean.

Espainiako Gobernuak onartu duen dekretuak, atak zabaldu dizkiela enpresa askori ERTEak (Aldi Baterako Enplegu Eteak) deklaratzeko azaldu du Kristina Getek, Oarso Bidasoko LABeko ardura-dunak: «Une honetan produktzioa geldituta dauka Irungo CAFek langileek derrigor-tuta, akordioa heldu dira enpresarekin orduak berreskuratuko eta ERTEa eskatuko dute; CB tailerretan gutxienezko zerbitzuekin ari dira lanean».

Saltoki handietan ere lanean ari dira, «neurriak hartuta», eta elikadura enpresetan berriaz, Urkabe Benetan-en edota Unialcon kasu, lan zama handia dutela zehaztu du. Beste lan eremu esanguratsua, Pasaia Portu Agintaritza; bertan, jarduera presentziarik ahalik eta gehien murrizteko neurri bereziak hartu dituztela zehaztu du Getek: «Ez dugu kontrako informaziorik jaso eta enpresa guztietan prebentzio neurriak betetzen ari dira, eta horiek ezin direnean bermatu, ordaindu gabeko baimenak ematen ari dira; gero adostu beharko dute zein modutara itzuliko diren». ERTEak izango direla argi du, enpresa ertain zein handietan, «sindikatuaren lana, orain, langabezia sariarekin langileek jasoko duten %70 hori enpresek osa dezaten eskatzea da %100 arte».

Hainbat informazio garran-



Papresa lantegian neurriak hartuta ari dira lanean. HITZA

tzitsu eman du Getek: «Langa-bezia izan gabe ere eskubidea izango dute ERTEa ezartzen duten enpresetan ari diren langileek hori eskatzeko, eta epez kanpo eskaera eginda ere berdin berdin balioko du; soilik telefonoz eta SEPE elektrokonoa erabilia egin ahaliko dituzte langileek eskaerak».

Osasuna bermatu

Osasuna guztiaren gainetik dagoela esan du Jon Urkola ELAko Oarso Bidasoko arduradunak. Hori bermatzeko neurriak proposatu ditu ELAK lantokietan; etxetik lan egitea ahalbidetzea; enpresetako aglomerazioak ekiditea; lankide eta bezeroen arteko distantzia bermatzea; banakako babes neurriak bermatzea; eta egoera berezian dauden langileak etxera bidaltzea. Neurri horiek betetzen ez diren enpresetan, ekoizpena etetezko erabakiak bultzatuko dituzte, legezko prozedurak jarraituta.

Lau egoera bereizi ditu. Alarma egoera ezartzen duen dekretuak zuzenean debekatu dituen jarduerak —ostalaritza, merkataritza, kirol eraikinak, zinemak... oro har ERTEak ari dira ezartzen ezinbesteko arazoengatik. «Enpresak ez dira negoziatzeko asmoa erakusten ari, eta alde bakarreko itxierak egiten ari dira, aldi baterako kontratu asko amaituztat ematen ari dira ostalaritzan, adibidez».

Dekretuak salbuesten dituen jardueren kasuan, egoera kontrako dela dio, «lan karga izugarria dute elikagaien salmentan ari direnak, eta askotan ez dira beharrezko neurriak hartzen ari langileen osasuna arriskuan jarri».

Hirugarren talde batean, dekretuak aipatzen ez dituenak kokatu ditu Urkolak: industria, eraikuntza, kimikak, pargintza. Tokian-tokian ez diren langileen kohesioaren arabera izaten ari omen da enpresen erantzuna.

Laugarren taldean, berriaz, oinarriko zerbitzuak edo administrazioa kokatu ditu. Osasun arloa gainezka dagoela dio, eta dauden bitartekoak eskasak direla, «pribatizazioaren ondorioetako bat da hori».

Zaintza eta etxez etxeko zerbitzuetan ari diren langileak ere enpresa pribatuaren menpe daudela esan du, «langileak babes neurri nahikorik gabe ari dira eta beraien osasuna kaltetuta ikusten badute ere, zerbitzua ematen jarraitzen dute, duten gizarte ardura dela eta. Gure egitekoa administrazio publikoari langile horien osasuna bermatzea exijitzea da».

Lan sindikalean ari direnak ere aipatu ditu Urkolak, eta etxe barrura begiratu, «ikusezina bada ere, egoera kontuan hartuta langileen behar guztiei erantzuten jarraitzen dugu, Euskal Herriko gizartearen alde borrokan, nekaezin».

Koronabirusaren zeharkako ondorioak asko dira, eta eragin handiagoa dute kolektibo zaurgarriengan, adinekoak tartean direla. Babesa emateko herritarren sareak sortzen hasi dira.

Printzatu ez den sarea

-IKERNE ZARATE

Errenteria-Orereta

Boluntarioak eskatu zituen Errenteriako Udalak Zaintza Sare Komunitarioa osatzeko. Helburua, egoera zaurgarriengan daudenak bakarrik ez uztea, babesgabe ez sentitzea, eta izan ditzaketan oinarritzko beharrak asetzea. Oinarritzko horiekin laguntzeaz gain —Babes Zibileko boluntarioek egingo dute lan hori, babeserako neurriak hartzeko baliabideak dituztelako— udalak beste helburu bat jarri zuen: Errenteria-Oreretan bizi diren 70 urtetik gorako herritar guztiak deituko ditu telefonoz, ongi dauden galdetu eta zer edo zer behar duten galdetzeko. Azken neurri hori, bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritar guztiak ere hartu du: 8.000 dei egingo dituzte. 333 lagunek izena emana zuten sarean astearte eguerdian.

Boluntario horietako bat da Enara Alfonso. 22 urte ditu eta hura izan da sare komunitarioan aritzeko izena eman zuen lehengo boluntarioa. «Arduraz» jokatu behar dela dio, eta egoera honetan ekarpena egin beharra dagoela: «Badago beharra duen jendea, ezin duena etxetik atera oinarritzkoak erostera, edota bakarrik bizi dena. Nik laguntzeko zer edo zer egitea badut, prestutasun osoa dut».

Astelehen arratsaldean bertan hasi zen lanean Alfonso, adineko herritarrei deiak egiten. Udalak 30 telefono zenbakiko zerrenda eta galdetegi gidoia eman zizkion. Deia jasotzen dutenei, udalaren bidez jaso duela telefono zenbakia, zaintza sare komunitarioko boluntarioa dela eta zer moduz dauden eta zer edo zer behar ote duten galdetzeko deitzen diela azaltzen

die, «informazio bat ere jaso behar dugu deitzen dugun pertsona bakoitzarena, bere egoeraren berri izateko. Etxean egotea gomendatzen diegu ez kutsatzeko, eta koronabirusaren sintomak zeintzuk diren azaltzen dizkiegu. Horiek sentitzekotan nora deitu behar duten ere azaltzen diegu».

Erosketak egin, botikak erosi edota oinarritzko beharren bat baldin badute 010 telefono zenbakira dei dezaketela ere esaten diete. «Oso eskertuta» azaltzen direla esan du Alfonsok, eta anekdota batzuk ere kontatu ditu: «91 urteko gizon batekin hitz egiten ari nintzela serio esan zidan berak bazekiela ez zuela birusak hilko, tokatzen zitzaizkion hilko zela. Beste emakume batek, berriz, denbora pasa balkoira atera eta balkoitik balkoira hitz egitea bihurtu duela esan dit, kalean adinekoak ikusten baditu etxera bidaltzen dituela ere kontatu dit, errieta eginda».

Asebeteta esperientziarekin, hala dagoela esan du Alfonsok, «aspertuta gaude etxean konfiantzuta, eta zer gutxiago laguntza eskaintzen badiegu besteei bizi-

Beste herrietan ere sortzen ari dira herritarren sareak

Errenteria-Oreretakoa ez da kasu isolatua. Beharbada lanak aurreratuen duten herrira da, baina Lezo, Irunen, Oiartzunen eta Passaian ere ari dira herritarren antolatzen, behar gehien dutenak laguntzeko.

Lezon, esaterako, atzo eguerdian 80 ziren Piztu Lezok eta EH Bilduk bultzatutako herri sarean izena emanda zeudenak. Udal gobernua ados azaldu da bi eragileen iniziatibarekin, eta izena emana dutenei



Enara Alfonso astelehenean hasi zen lanean boluntario gisa. Telefono deiak egiten ari da. HITZA

tza errazteko; ez dizu esfortzurik eskatzen, dei batzuk egitea da, behar handiena dutenekin hitz egitea. Esfortzu txikia da eta emaitza, berriz, balio handikoa».

Adinekoak, %25

Duintasuna Jubilatuta eta Pentsiodunen elkarteak kidea da Joxe Mari Uri. Pentsioa eta zahartzaro duinen alde borrokatzen da elkarte hori, eta behin baino gehiagotan mintzatu da adinekoen bakardadearen gainean, «bakardadearekin amaitzeko tresna eta neurriak behar ditugu». Zaintza Sare Komunitarioa martxan jarri izana «berri ona» dela dio, adineko pertsonen sentsibilitate bat badagoela erakusten duelako: «Udalak kontuan hartu du errenteriarren %25 adinekoak garena». Iniziatiba martxan jartzeko boluntarioak eskatu izana egokia irudituzo Uriari, eta gogora ekarri adineko asko bakarrik bizi direla,

deika hasiko da euren zereginaren berri emateko. Aldi berean, iniziatiban izena emateko bideak erraztuko dituzte.

Oiartzunen ere herritarren zaintza sarea osatzekotan dabilta, Oiartzun Aurrea. Herriaren izena emateko—eta informazio lortzeko—webgunea dute (oiartzunaurrea.wordpress.com). Atari digital horretan, gainera, etxeetako itxialdia arintzeko hainbat aisia baliabide daude, adinaren arabera sailkatuta. Izena eman dutenekin harremanetan jarriko dira taldearen arduradunak, zeregin zehatzak hitzartzeko.

«gehienak, gainera, emakumeak dira».

Iniziatibaren beste puntu aipagarria, solidarioa izatea da Duintasunako kidearentzat, eta belaunaldiartekoa: «Komunitate kontzientzia sortzeko izugarri garrantzitsua da; krisi honek duen txar guztiarekin, badu zer edo zer positiboa, balioko du adineko pertsonak bazterrean ez uzteko, eta halaber, balioko du belaunaldiarteko harreman bide batean lehen urratsa egiteko: gure herrian, gure auzoetan elkar babeserako esperientzia baten hasiera suposatuko du honek. Etorrizunari begira, gainera, bestelako bideak zabaltzeko balio dezake, eta adibidez, antena pertsonak sarearen sorrera izan daiteke; pertsona horiek gizarite zerbitzuekin harremanetan daude eta egunerokotasunean beren inguruan dauden pertsona zaurgarriengan jarraipena egiten dute».

Irunen udala izan da zaintza sarearen bultzatzaile. Astearte arratsaldean 200dik gora ziren elkartasun taldeari atxikitakoak. Guztiek esker mezu bat jasoko dute udalaren partetik, eta horrekin batera, modu koordinatuan lan egiteko xehetasunak. Halere, EAEn koordinatzen ari den boluntario sare orokorraren zain daudela dio udalak, hurrengo pausok emateko.

Izan ere, Jaurlaritza Guztion Arteen sarea osatzeko bidean da; Hondarribiko Udalak bat egin du jada horrekin. Ikusi beharko gainontzeko eragileek zer egingo duten.

Adineko pertsonen behotzekiaz ere mintzatu da Uri; udalak aurreikusia du martxan jartzea, «helburua da adineko pertsonen zahartzaro aktiboa sustatzea». Argi du belaunaldiarteko iniziatiba martxan jartzeko abiapuntua izan daitekeela Zaintza Sare Komunitarioa eta ezin dela aukera galtzen utzi, «ekarpen handia egin diezaiokgu elkarri, prest gaude jasotzeko, baita emateko ere».

Herritarrek akuilu

Errenteriako Udala da iniziatibaren sustatzailea. Aizpea Otaegi alkatea pozik azaldu da iniziatibak izan duen erantzunarekin: «Oso polita izaten ari da, txarrean onena ateratzea delako; oso egoera larri eta berezi batean ikustea jendeak laguntzeko eta komunitatea babesteko duen gogoia, oso polita da». Iniziatibak arrastoa utziko duela zalantzarik ez du alkateak.

Egitasmoaren atzean herritar askoren laguntzeko gogoia dago, baina baita udalak aspaldian duen kezka bat, alkatearen arabera: «Gure zailtasun beti da gauzak martxan jartzen ditugunengan norengana iristen ote garen» Bada, oraingoan, iritsi dira.

Eskertza eta aitortza egin die boluntarioei alkateak: «Halako pertsonak herrikeriak izateak bihurtzen gaitu beste zerbait; ez gara toki jakin batean espazioa eta denbora partekatzen dugun pertsona solteak. Gure inguruan gertatzen denarekin konprometitzen garen jendea gara, eta horrek sekulako balioa dauka. Egun hauetan egiten ari garenak jarraipena izatea oso interesgarria eta ederra litzateke».

Oiartzun Irratiak entzuleen eskaerak jasoko ditu, itxialdia arintzeko

-ERIK GARTZIA Oiartzun Herritar guztiek bezalaxe, Oiartzun Irratiak ere osasun larrialdira egokitu behar izan du bere programazioa. Jakinarazi dutenez, egoera honek irauten duen bitartean, irratiko saioretara ez da gonbidaturik egongo, eta kolaboratzaileek beren lana bertan behera utziko dute. Segurtasuna da helburua. FMko 106,5 kanalean entzun daiteke oiartzuarren irratia.

Aldatuko ez dena eguneroko albisteei eskaintako tartea izango da. Entreenimendua indartu nahi dute, konfinamendua pasatzen laguntzeko. Honako zerrenda saioen pasatu dute: musika zahar eta berria, konfinamendua arinago pasatzeko magazinea, aholkuak, barretaria... Horrez gain, lehiaketaren epea ordu erdiz luzatuko dute. 12:30etik 13:30era izango da.

Entzuleek beren proposamenak helarazi ditzaketela gogorazi dute. Ohiko telefono zenbakia erabilgarri ez dagoela adierazi dute, baina bai whatsapppe aritzeko zenbakia: 683 37 96 19. Audioak, etxekoak animatzeko mezuak, proposamenak eta okurrizten dena bidal dezaket entzuleek.

@ Koronabirusaren osasun larrialdiak gurean duen eraginari buruzko informazio gehiago, hemen: oarsoaldea.hitza.eus bidaso.hitza.eus



Garraio publikoan, tentuz

Oarso Bidasoan, treneko eta topoko zerbitzuak %100ean ari dira martxan, baina asteburuan ez dago gaueko zerbitzurik, eta topoa ez da Hendaia-iristen, Ficoban egiten du azken geldialdia. Ekialdeburuko linea guztietan murrizketak daude, %40-60 ingurukoak. Garraio publikoan bidaiaztean ezinbestekoa da segurtasun distantzia mantentzea bidaia-irien artean, eta autobusen kasuan, gidaria isolatuta egongo da: atzeko ateetatik sartu eta atera behar dira erabiltzaileak. U. ETXEBESTE

Ertzaintzak eta tokiko polizia kontrolak ezarriko dituzte

-URKO ETXEBESTE Koronabirusaren krisia dela eta, Ertzaintzak eta tokiko polizia kontrolak ezarriko dituztela jakinarazi du Segurtasun Sailak. Horien helburua da baimenduta ez dauden desplazamenduak galaraztea. Norbanakoen garraioan (autoak, motorrak, bizikletak...) eta kolektiboan (autobusak, topoa, tren...) ezarriko dituzte kontrolak, alarma egoeratik, baimenduta ez dauden joan-etorriak ezin direlako egin.

San Jose Egunaren zubian bereziki indartuko dituzte kontrol horiek, debekatua baitago aisia bidaia egitea, baita itxialdia ohikoa ez den etxebizitza batean

egitea ere. Beraz, gaur eta igandean bitartean bereziki zainduko dituzte polizia herritarren joan-etorriak.

Segurtasun Sailak oroitarazi du egunotan baimenduta dauden desplazamenduak, besteak beste, lanerako joan-etorrienak eta premiazko egoera eskatzen dutenak (jaki banatzaileenak, ambulanziaz...) direla. Eta horiek, ibilgailuan egiten badira, banakakoak izan behar direla, hau da, pertsona bat autoko (gidaria). Autoetan bigarren pertsona bat joatea beharrezkoa bultzatzen, atzealdeko eserlekuetan joan beharko luke, eskuineko tokian, segurtasun distantzia

mantenduz gidariarekiko. Bi pertsonako bidaiek justifikazio osoa behar dute izan.

Segurtasun Sailak jakinarazi du, behar balitz, errepideak itxeko eskumena duela.

Muga administratiboa

Espainiako Gobernuaren erabakia jarraiko, Espainiako Polizia eta Guardia Zibila kontrolak jartzeko muga administratiboan. Izan ere, Espainiako Estatuko mugak itxi egin ditu Madrilek, eta arrazoi berezirik ez bada (lana, larrialdiak...) herritarrek ezin dute Bidasoaren alde bateratik bestera joan.

Izurriteari aurre egiteko odola behar da

ELKARTASUNA // Koronabirusak eragindako larrialdi sanitarioaren ondorioz, odola behar dela jakinarazi du Euskadiko Odol Emaileen Elkarteak. Hala, tokian-tokian odol emate saio bereziak egingo dituztela jakinarazi du odol emaleen elkarteak, eta horiek egun batetik bestera jakinaraziko dituztela. Beraz, herritarrei adi egoteko eskatu diete, erne egon daitezela iritsiko diren abisuei.

Irungo Harrera Sareak bertan behera utzi du jarduna

IRUN // Irungo Harrera Sareak (IHS) sare sozialen bitartez jakinarazi du eten egin dituela euren boluntario lana. «Konfinamendua dela eta IHSk zuzenean migrantei ematen dizkien sostengu lanak bertan behera utziko ditu momentuz. Hala ere, eta ahal dugun neurrian, lanean jarraituko dugu», adierazi dute. Beraz, Irunera datozen migranteek ez dute izango sareko kideen laguntzarik. Bitartean, zaintza, sostengu eta elkartasun sareak indartsu mantentzerantz animatu dituzte irundarrak.

HITZako lantaldea etxetik ari da lanean astelehenetik

OARSO BIDASOA // HITZA-ko lantaldea etxetik lanean ari da astelehenetik, koronabirusaren zabalpena saihesteko ardua pertsonalak eta kolektiboak hartzea ezinbestekoa dela iritzita. Saiatuko gara egoeraren arabera erantzuna ematen informatzeko zereginari. Egoerak uzten ditugun bitartean informatzen jarraituko dugu. Zain zaitezte.

Yoigo

MÁSMÓVIL

pepephone

llamajá*

LEBARA

OPERAREN AMAIERA BAINO TXALOTUAGOA.



OPPO A5
Yoigo

ETA ZUNTZA + LA SINFÍN GB[∞]
DOHAINIK

MUGIKOR LIBREA


179€

Mugikorraren prezioa "dohainik" Yoigo eta MASlife dendetan, kontratatutik Zuntza + La Sinfín GB[∞] tarifaun kontratua egindako eramangaritasunerako. 2020ko martxoaren 2tik 31ra arte izango da baliozkoa, edo 1.000 ale agortu arte. Tarifan 24 hileko iraukortasuna eduki behar da. Gainerako baldintzak kontsultatu zeure dendan.

ZEURE MASLIFE DENDARA ETORRI BISITAN ETA OPARI SEGURUA ERAMAN. DIPUTAZIO PLAZA, 2 - ERRENTERIA.

MASlife

Judas Z Judas Arrieta



Bakardadea



Hitz hartuak Marijo Telletxea

Oiartzun

Egia esateko idatzi hau izaten ahal zen koronabirusari buruzkoa, etxetik ateratzeko debekuak gure bizitza eta ohiturak beste ikuspegi batetik ikustera eta egin gabe genituen galderak egitera eraman baikaitu. Zalan-tzaz beteta gaude, ez dakigu salbuespen egoera honek ez zenbat iraungo duen, ez eta zer ondorio izango dituen ere. Ezjakintasunak etorriko denaren aurreko izua areagotu besterik ez du egiten. Baina gaurkoan ez naiz salbuespeneko den isolamenduz ariko, gaurkoan gizartearen bizitzeko eta antolatzeko dugun moduak eragiten duen bakardadeaz ariko naiz.

Gizakia zer den esateko orduan, definizio bat baino gehiago ditugu, bai liburuetan, bai herri jakintzaren alorrean: hizkuntza duena, bi oinetan ibiltzen dena, behin eta berriro akats bera egiten duena, ongia eta gazkia bereizten dituen, bere

heriotzaz jabetzen dena, arrazionala, irudimenaren bidez bere burua eta ingurua erazten dituen, hots, fantasiaduna, bizitzan zehar etengabe aukerak eginez bidea egiten duena eta abar. Segi genezake horrela, eta ikusiko genuke gizakia ulertzeko modu horiek guztiak punturen batean bat egiten dutela, eta hala ere, ez dutela agortzen gu garen animalia xeble horren izaera.

Nolanahi ere, aipatutako hori guztia ezinezko litzateke gizartearen beste gizaki batzuekiko harremanean biziko ez bagina; ezin gara gizaki izan eta gizaki gisa bizi beste gizaki batzuk inguruan izan gabe. Garai bateko Grezia klasikoan gizakiarentzat zigorrik handiena deserriratu izatea zen. Erbesteratuak herri-kideei esker eskuratu duen identitate soziala galtzarekin nortasunaren zati esanguratsuenetako bat galtzen du, eta bere burua desagertzeko zorian ikusiko du. Baten batek esango du gaur egun bigarren larria zer kulturatan eratu dugun ez dela garrantzitsua, mundu global eta globalizatuak hori aldatu eta beregiteko aukerak ematen dizkigula, eta, ondorioz, identitate edo nortasun indibiduala dela funtsezkoa. Horri buruz luze eta zabal aritu gintezkeen arren, garbi dagoena da gizakiak beste-en beharra duela gizaki bezala bizi eta garatzeko.

Ez da harriztekoa gizakiarentzat isolamendua edo bakarrik egotera zigortzea izan daitekeenik, eta zigorrik gogorrenetakoa izatea. *Bakarrik bizitzea triste bizitzea* dio esaera zaharrak: ez gaude bakarrik bizitzeko eginak, behar dugu besteekin egon, hitz egin, barre egin, haserretu, mundua hor dagoela eta nolako den baieztatu. Eta gu ere bertan gaudela jakiteko eta ziurtatzeko ezinbestekoa dugu besteak. Besteekin lotzen gaituen hari hori hausten bada, ondorioak larriak omen dira giza psikearentzat.

Potez pote, filosofia kalera ekimenak, filosofia jendartera aterata eta gizarteratzeko asmoz, Pote Filosofikoak jarri ditu abian Tolosan eta Lazkaon. Joan den hilabetean, Lazkaoko Gerrikoa elkartean, bakardadeari buruz aritu ginen hausnarrean Ula Iruretagoiena arkitektoaren laguntzarekin. Gure herrietako eta hirietako arkitektura, eta, oro har, eraikinen antolaketa mundua ikusteko, ulertzeko eta irudikatzen dugun moduaren

Bakardadea ez da zertan adin edo bizitzako momentu jakin bati lotu behar den egoera, gizakiari berari baitagokio, moduren batean, bakardadea sentitzea

erakusgai direla esan zuen. Iruretagoienak eraikinen hainbat ezaugarri azpimarratu zituen: bizitoki ditugun etxeetan sartzen garenean, ataria igarobide hutsa da; etxetik kanpo gure autoa ahalik eta hurbilen uztea hobeesten dugu etxetik atera orduko autoan sartu eta helmugara lehenbailehen iristeko; auzoan, umeentzako parkeak bai, baina bestelako toki komunik ez da diseinatzen; gazteak tabernetan edo lokaletan elkartzten dira... Zer topaleku dugu? Norentzat dira? Zertarako? Horrek guztiak nolabait agerian jartzen du gizartearen erdigunean jartzen diren balioetako batzuk: lan aktiboa, intimitatea, autonomia, azkartasuna, gaztetasuna...

Eta zer gertatzen da dagoeneko hain autonomo, edo azkar, edo gazte ez direnekin? Zer harreman mota eraikiko dute? Eta norekin? Esan daiteke adinean aurrera egiten dugun neurrian gizartearen bazterrean lerratzen hasten garela, eta gero eta gehiago gure harreman familiar afektiboaren menpeko bilakatzen. Harreman horiek gutxietsi gabe, gizarteak berak ez al luke lagundu behar helduen harreman sarea ahalik eta aberatsena izan dadin?

Bakardadea ez da zertan adin edo bizitzako momentu jakin bati lotu behar den egoera, gizakiari berari baitagokio, moduren batean, bakardadea sentitzea. Kontua da giza existentziari lotutako bakardade horrez gain, bizitza jasanezin edo sufrimendu bilakatzen duen bakardadea ere badela gure artean, eta biga-

rren bakardade mota hori sentitzeko aukera handiagoa dugu bizitzan aurrera egin ahala. Gazteak garenean, eta bizia hasi besterik egin ez denean, dena dugu egiteke, dena ilusio, dena edo ia dena posible. Bizi ahala, atek ixten eta aukerak urritzen hasten dira, eta nahiz eta hori ez den bat-batean gertatzen, benetan ez gara konturatzen hartutako erabakiek eta igarotako denborak zenbateraino mugatuko diguten bizitza. Eta jakina, inoiz ez dugu irudikatzen nolako izango den gure zahartzaroa, nolakoak izango garen gu zahartzatzen, zer bizimodu egingo dugun, zer muga eta motibazio izango dugun eta abar.

Zahartzaroa pentsatu eta ikusteko modu asko egon dira historian zehar, baina ez dut uste gaur egungoa oso desiragarria denik: zaharra izandakotzat jotzen dugu, baina hasi beharko genuke, garai batean bezala, luzaroz dena bezala ikusten, gizartearen eta bizi antolaketan lekua ematen, eta ez bazterkeriaz eta errukiz tratatzen, etengabe, zer galdu duten gogorazaz. Eta horretarako, interesgarria litzateke gure heldu-zaharren harreman sarea familiara ez mugatzea. Jakin badakigu zahar asko bakarrik sentitzen dela eta sentimendu hori sufrimendu bilakatzen dela gizarterekiko hariak poliki-poliki eten ahala. Ez dezagun ahaztu gu ere bide horretan gozabela eta harreman osasuntsuak izatea dela giza duintasunari eusteko modu nagusia. *Jaio eta hil bakarrik egiten gara*, baina bitartean bizi elkarrekin.

Irudiak



Kaleetan ia inor ere ez, eta jarrai dezatela horrela

Koronabirusak eragindako osasun larrialdi egoerak kaleko bizitza soziala etetea ekarri du. Hala agindu dute osasun zerbitzuek, eta hala izan behar du baldin eta gaitzaren zabalak gutzitu eta eten nahi bada. Horrek ekarri du, ondorioz, Oarsoaldeko eta Bidasoko herrietako irudia oso ezohikoa izatea, kaleak hutsak, errepideetan trafikotxikia, eta etxeak gainezka. Herritarrek, oro har, errespetatu egin dituzte osasun zerbitzuen aholku eta aginduak. Baina izan dira horiei jaramonik egin ez dietenak, zoritxarrez. Luze-rako doa herritarren etxeetako itxialdia, ziurrenik, hasiera batean ezarritako hamabostalditik harago. Hortaz, pazientzia, errespetua, eta zaintza ezinbestekoak dira une historiko honetan aurrera egiteko. Herritarren inplikazioa eta zentzuzko jarrerak premiazkoak izango dira dena ondo bidean joan dadin. JD MARTINEZ / HITZA

«Oso handia da sorrarazten didana, sinesten dut umorean»

MIRARI MARTIARENA UMOREGILEA

Oiartzuarrak ehun saio daramatza 'Bakean dagoena bakean utzi' lanarekin, Idoia Torregarairekin batera. Saio biribila aitzakiatzat hartuta, bere ibilbideari errepasoa eman dio Martiarenak.

-ERIK GARTZIA *Oiartzun*
Umorearen alorrean aritzen zara. Txikitatik izan al zara saltsera? Sehaskatik dator kizu?
Ez pentsa. Ni umetan oso isila nintzen, oso lotsatia, baina bai gustatzen zitzaizkidalda umorezko gauzak. Nire inguruan, Piko-ketako aitona, nire aita eta abar, oso umoreko jendea izan dut, oso jendarteko jendea izan da, baita tabernara etortzen zirenak ere. Horrek beti erakarri egin izan nau.

Lagun artean umoretsu ibili izan naiz beti. Bertsotan ibiltzen nintzenean ere umorezko gaietan gustura ibili izan naiz. Oiartzun Irratian hasi nintzenean ere, Martin Kittorekin, Urtzi Argibayekin eta abar, egiten genuen *Martin Kittoren txokoa*, gero *Ongi etorri Katxonderstenera* saioa bilakatu zena. Bazebiltzan beti, inguruan, umorezko gauzak. *Argia*-rekin, gainera, egin genuen telesail bat, *Damutuko zaizute* izenekoa. Hor parte hartzea horrelako *klak* bat izan zen. Nire buruari esan nion jendeari barre eginaraztea asko gustatzen zitzaidalda.

Deitu zidatenean, esan zidaten lotsak galdu behar nituela. Askotan, nire buruari ukatu diot kamera aurrean jartzea, gorputzagatik edo dena delakoagatik.

Noiz eman zenuen jauzia?

Oso garrantzitsua izan zen Ion Zabaleku *Zapo* zena. Berak beti esaten zidan Iturriozko festetan bakarriketa bat egin nezan, eta nik 'bai, bai, bai' erantzuten nion, eta gero ezetz zen. Momentu bat iritsi zen, esan zidana 'zurekin hitz egin nahi dut'. 2017ko urtarrila zen. Eta bai, esan nion Iturriozko festetan bakarriketa egingo nuela. Beldur momentu asko izan nituen, baina berak asko lagundu zidan.

Gainera, Idoia Torregarairekin elkarlanean ari nintzen, zerbait egin behar genuela. Bere bekaduna izan nintzen UEUn,



HITZA

2007tik-edo ezagutzen nuen. Elkartzen ginen, baina inoiz ez zen momentua izaten. Duela bi urte, esan zidan Usurbilen zerbait egiteko aukera genuela. Hamabost egunetan prestatu genuen; horrela sortu zen *Bakean dagoena bakean utzi*.

Beldurra eman al dizu inoiz txiste edo esketxen bat egin eta ikus-entzuleek barrerik ez egitea?

Bai, baina emanaldira gertatzen den zerbait da. Publiko guztiak

ezberdinak dira, eta azterketa bat bezalakoak dira: gainditzen duzu, jendeak barre egiten badu. Herritik herrira alde dago, pertsonatik pertsonara alde dago: batzuei gauza batzuek ematen diote barregura, eta beste batzuei, beste gauza batzuek. Umorea ez da gauza unibertsala, tristura den bezala. Oso pertsonala da.

Zuk pentsatzen duzu 'hau kristorena da', eta ez du funtzionatzen, eta aurrera segi behar

duzu. Gero egiten duzu komentario bat *sinmasekoa* zure uestez, eta jendea kristoren grazia egiten dio. Ez dakizu zerk funtzionatuko duen.

Zein sentsazio izaten duzu barrerik sortzen ez duzunean?

Saio guztietan, egia da, *feedback* ona jaso dugula. Ez denean lehortzen zure buruari 'honetatik ikasiko dugu' esaten diozu. Txalo asko jasotzen dugunean ez gara munduko onenak, eta barrerik jasotzen ez dugunean, ez

gara munduko txarrenak. Hor tartean gabilta.

Umiltasun kolpe bat izaten da. Agian badago jendea ez diola hainbesteko graziaz ematen zuk egin duzunak. Ez diogu bueltarik ematen: badakigu hurrengo batean beste azterketa bat izango dela, eta gainditu behar dugula.

Azterketak presioa dira ikasleentzako. Zuentzako ere bai?

Guk ez dugu presiozat hartzen emanaldi bakoitza, bestela oso gaizki pasatuko genuke. Egia da



«Umorea ez da unibertsala, tristura izan daitekeen bezala. Oso pertsonala da»

«Gizonen umorea da unibertsala, emakumei grazia egin behar diena»

urduritasunak baditugula. Presioa ez da azterketaren mota berroka, beste zerbait da.

David Broncanok esaten zuen: bakarriketa edo umore saio bezala iragartzen duzun momentutik, jendea doa zu ikustera eta suposatzen du barre egin behar duela. Espektatibak sortzen dira. Gainera, esaten zuen publikoak zuri begira dagoela pentsatuz 'barre eginaraziezadazu, putakumea'. Barre egiten ez bada, frakaso bat da? Bada ez. Mugituko zitzaizun zerbait, edo ikasiko zenuen zerbait.

'Barre eginaraziezadazu, putakumea' horrek esan nahi du umorearen bila doan bat exijenteagoa dela. Paradoxikoa al da berez ongi pasatzerako doan hori kritikagoa izatea?

Kritikoagoa bada, eta gure kasuan bezala, bi emakume gaudenean oholtzaren gainean. Gizar-

tea ez dago ohituta emakumeak ikustera umorea egiten. Gizonek egin duten umorea da umore unibertsala, emakumeei ere grazia egin behar diena. Oholtza gainean bi emakume ikustea, emakumeen eguneroko gauzei buruz hitz egiten ikustea, batzuentzat ez da eroso. Hori onartzen dugu. Beste batzuentzat bai, kristoren barreak egiten dituzte. Aulkian eserita gaudeanean deseroso sentitzen bagara, zerbaitengatik da. Oso ohituta egon gara gizonak entzutea emakumei buruz barre egiten, baita bere barrabil eta zakilei buruz hitz egiten ere. Emakume bat entzuten baduzu 'beheko motzean azkura daukat' esaten, badirudi zerbait pasatu dela, ez dela hain eroso.

Horregatik egiten dituzue keinu zirikatzaile horiek, titiak heltzearena bezala?

Ikuskizunaren parte da, eta gure proposamena da titiekin emakumeek barre egitea. 'Patriarkatuari kar-kar-kar, baina titiak helduta'. Orduan, iraultza egitea eskatzen dugu, gorputzekin eta umoretik. Eta zein gutxi ukitzen ditugun gure titiak; askotan beste norbaitek gehiagotan ukitzen dizkigu, eta guk gure buruari gutxitan. Horretarako ariketa bat da. Emanaldiaren erdialdean egiten dugu, eta bukaeran ere bai. Lehenengo zatian egiten denean denak lotsatu egiten dira, baina bukaerarako denak titiak helduta egoten dira.

Aipatu duzu espektatibak sortzearena. Gertatu izan al zaizu zure burua norbaiti aurkeztu eta besteak txiste bat espero izatea?

Zerbait kontatzeko eskatzea baino, jendea etortzen da bakarrizketetan ideiak ematera. Kontatzen dizkirate beraiei pasa zaizkienak, eta zuretzako baliagarri izan daitezkeenak. Gero ez dakit erabiliko ditudan ala ez, baina gustura hartzen ditut. Jendeak pentsatuko du: 'Nik ez daukat



ION MARKEL ARGAZKIAK

graziarik, baina Mirariri kontatuko diot, berak kontatzeko'. Hori polita da.

Erabili izan dituzu?

Nik beti lehenengo pertsona kontatzen ditut bakarrizketak. Jendeak nahi duena pentsatuko du gero. Esan beharrea 'nik baueukan lagun bat...', esaten baduzu 'niri pasatu zitzaidan...', jendeak agian gehiago enpatizatuko du. Gainera, badakigu lagun hori ez dela existitzen... [Kar-kar]. Batzuetan zuri gertatu zaizu, besteetan gezurra da; balio dezala umorea egiteko. Nahiz eta gezurra izan, egia bezala kontatzen baduzu, indar handiagoa dauka.

Esan duzu lotsa-edo zenuela bere garaian, baina orain plazandre irudia ematen duzu. Lotsa edo beldur horiek uxatu dituzu guztiz?

Errespetua beti diot jende aurrean azaltzeari. Izan daiteke mahai-inguru bat gidatu, ekitaldiren bat aurkeztu edo irrartian hitz egin. Errespetua beti joango da denaren aurretik eta denaren gainetik.

Egia da, hala ere, jendearen aurrean nagoenean hain gustu-

ra nagoela, eta sentitzen dudana hitzez esplikatzetik ez dagoenez, momentu honetan umorearekin zerikusia daukan ezzerri ez diodala ezetz esaten. Ibil naiteke lanez gainezka, baina umorea



«Euskal Herriko pleno areto gehienak zapaldu ditugu bakarrizketarekin»

«Egungo egoera larria da, baina umorez eramangarriagoa izango da»

baldin badago tartean, onartzen ari naiz. Sinesten dut horretan, eta sorrarazten didana oso handia da. Asko gozaten ari naiz.

Bakean dagoena bakean utzirekin zer esanik ez. Nire lagun onenetako batekin horrelako gauza bat egitea, horrelako amets bat betetzea, ez dago ordainduta. Pagatzen digute, bai, baina balio emozional horretan sekulakoa izaten ari da.

100 saio bete berri dituzue. Zerbaiten seinale da arrakasta hori, funtzionatu duela.

Binakako bakarrizketa horrek funtzionatzen du. Eta ahoz ahoak ere funtzionatzen du, batez ere herri txikietan. Gero ibiltzen dira beste herrietakoiei esaten.

Guk hiru gai uztartzen ditugu: euskara, generoa eta umorea. Horrelako gaiak jende gutxi eskaintzen ditu. Formatu honek aukera ematen digu toki txikietan egiteko, edo herri txikietara joan eta aukerarik ez dutenei zerbait eskaintzeko. Uste dut Euskal Herriko pleno areto gehienak pasatu ditugula... [kar-kar]. Ez dugu ezer behar: gu biok gara, bi aulki, eta kitto. Jendeak gustuko du, zeren bestela ez baidin honetan ibiliko. Deitzen gaituzte eta gu joan egiten gara. Udazkenerako bigarren lan bat prestatzen ari zarete, horrela al da?

Bi urte daramagu honekin. Euskal Herriko herri guztietara ez gara iritsi, baina bai ari zaizkigula deika galdetuz ea bigarrenik ez ote dugun egin behar. Ikusten dugu antzeko sintonian zer esan badaukagula, eta berrogeialdi

hau, edo uda, izango da sortzeko denbora. Nahi genuke udazkenerako zerbait berria plazaratu; nekatuta egongo bagina, ez genuke egingo.

Koronabirusaren garaian, ba al dago umorearentzako tartirik?

Sare sozialetan ikusi besterik ez dago. Egia da lehenengo egunetan gaudela, eta ikusi beharko da azkeneko egunetan nola gauden. Nik gaur egin dut koarenta honetako gauzarik garrantzitsuenak: oinetako hatzazalak moztu. Horrelako satisfakzio bat badaukat: 'Ondo Mirari! Egin duzu zerbait garrantzitsua!'. Ez diot konfinamendua deitzen, nik konfitazioa deitzen diot. Jendea ez dago lanean, edo etxetik ari dira lanean, eta aukera gehiago edukiko ditu telefonoz hitz egiteko. Ni deika ari naiz jendeari, eta txorakeriak esaten ditugu...

Egoera larria da, badakigu, baina umorez hartzen badugu, eramangarriago izango da. Bere dramatismo puntua badauka, eta badaukat nire kezka. Baina ahal den neurrian goxatu baldin badugu eta umoretik bizi behar baldin badugu, umoretik kontatuko dugu. Horretatik ere ideiak aterako ditugu, eta koadernoak beteko ditugu umore zaparradarekin.

Badaukazu beste proiekturik esku artean?

Ez. Momentuz, ez. Lanik gabe geratu naiz. Egunak egin du saioa eten dute. Oraintxe ez da garairik onena lana bilatzeko... baina ez naiz geldirik egongo. Norbait lanen bat badu niretzat, txoko hau aprobeztatuko dut lana eskatzeko [kar-kar].

Bitartean, zain. Zain, egoerak zer ekarriko duen, eta gauzak goxo hartzeko itxopen. Pentsatzen dut, batzuetan, agian ez dudala hau egiteko balio, baina hiru urte pasatu ditut hau egiten.

Zozketa · Saridunak

HITZA kide en TXOKOA

ERRIGORA PROIEKTUA

Udaberriko kanpainarako egin zure eskaera. Otsailaren 27tik martxoaren 12ra. www.errigora.eus



Alberto Velez Del Burgo Esnaola
Ana Aldaraborda Trojaola
Juan Ignacio Ansa Martirena

HITZA jarriko da harremanetan saridunekin.

Saria erabili ahal izateko HARPIEDUN txartela aurkeztu behar da.

egin zaitez harpidedun!

Hamar urteko atzerapenarekin, eta inplikaturako eragileen zein oposizioko alderdien sostengurik gabe, aurrera atera du EAJren udal gobernuak Hondarribiko I. Berdintasun Plana.

Noraezean urratsak egiten

-REBEKA RUIZ

Hondarribiko I. Berdintasun Planak ez du inor asebeste EAJ izan ezik. Proposamenarekiko desadostasuna adierazi dute oposizioko udal talde guztiek, baita Emeki emakumeen elkarteak ere. Are gehiago, Emakunderen irizpideetatik kanpo kokatu dute udal gobernuak diseinatutako plana.

Berdintasun terminoak Hondarribian hautsak harrotzen ditu aspalditik, eta hala dela agerian gelditu da beste behin ere. Eusko Jaurilaritza Gizonen eta Emakumeen arteko VII. Berdintasun Plana garatzen ari den bitartean, hamar urteko atzerapenarekin lortu du EAJren udal gobernuak lehena aurrera ateratzea, soilik, jeltzaleek emandako aldeko botoekin. Plana babesteko oztopo nagusia argi eta garbi errepikatu dute

Plana egikaritzea ez dela posible teknikari eta departamentu propiorik gabe diote

Indarkeria matxistaren aurkako protokolo falta ere kritikatu du Emekik

eragileek eta oposizioak: plana egikaritzea ez da posible Berdintasun teknikaririk eta departamentu propiorik gabe.

Proposamenari uko egin ez izan arren, ez dute aldeko botoirik eman oposizioa osatzen duten alderdiek. Planaren gabeziak azalera zituzten osoko bilkuraren aurretik, eta egoera ikusita ohar bateratua kaleratu zuten plana onartu eta biharamunean, plana ez zela «ragingarria» izango salatuz. Estitxu Urtizbe-

rea Abotsanitzeko zinegotziak, Xabier Isasi koalizio abertzaleko bozeramaileak eta Iosu Alvarez talde sozialistako arduradunak parte hartu zuten idatzian, eta beste behin ere, Berdintasun teknikari eta departamentuan jarri zuten fokua. Abstentzioa justifikatzeko ondoko azalpena eman zuten alderdiek: «Oso garrantzitsua da berdintasun politikak ezartzeko balioko duen dokumentu bat edukitzea».

Horrez gain, gobernu taldea plana eragileei aurkeztu gabe plenora eramaten saiatu dela salatu zuten oposizioak. Osoko bilkura bi asteko atzerapenarekin burutu zuten, udal taldeek Berdintasun Plana aztertzeko denbora behar zutela argudiatuta, baina, oposizioko kideen arabera, EAJk «korrika eta presaka» onartu nahi zuten, «Martxoaren Saren aurretik». Oposizioak «behartuta» eragileekin bilera egin zuela esan zuten, «halere, bilera hartan esan zirenak ez ditu jaso». Izan ere, eragileek ere Berdintasun departamentua eta teknikaria «ezinbestekoak» zirela adierazi zuten.

Xede bakarra, kezka bera

Gabeziak kontutan izanda, Emeki emakumeen elkarteak ere kezka agertu zuen osoko bilkuraren aurreko egunean argitaratutako oharrean. Izan ere, teknikari eta departamentu zehatzik gabe berdintasun politika «eraginkorrak» garatu ahal izateko Hondarribiko Udalak bere esku dituen «neurri, baliabide eta langile eskasia» nabarmendu zituen taldeak. Harago egin zuten emakumeen elkarteak bere argudioak planteatzerakoan, eta esandakoaren arabera, Berdintasun departamentua eta teknikariaren figura sortzea 2020-2023 urteetarako helburu «operatibo» gisa ez planteatzeak haien kezka areagotzen du.



Panpinot kalean du egoitza Gizarte Zerbitzuen sailak. Haiek dinamizatu eta egikarituko dute plana. R.R.

Indarkeria matxistaren aurkako protokolo falta ere kritikatu zuten elkartekideek, eta horren sorrera 2022. urtera arte atzeratu izanak «egonezina» sortzen die la erantsi. Halaber, planaren garapena, sustapena eta ebaluazioa Gizarte Zerbitzuen esku utzi izana «ulertezina» iritzi zioten, «momentu honetan lanez gainezka dagoen arloa delako». Elkarlanerako prestutasuna, konpromisoa eta interesa adierazi zizkioten udalari.

Aipatutako guztiaz gain, Emakunderen irizpideak ez bete izana eta 2005eko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako

4/2005 Legeak agindutako egiturak ez osatu izana deitoratu dute inplikaturako aldeek.

Adostasunik gabeko plana

Gotzone Larrarte Gizarte Zerbitzu, Berdintasun eta Lankidetzaz zinegotziak planak herritarrei ekarriko dizkien onurak nabarmendu zituen aurkezpenean, Hondarribiko «errealitate zehatzterako» pentsatuta egoteaz gain, «herriaren aukeretara» egokitua dagoelakoan. Txomin Sagarzazu alkateak, bere aldetik, alardearen ondorioz izandako zailtasunak «umiltasunez» onartu zituen komunikabideen au-

rrean egindako agerraldian, eta gatazkak tankera honetako lanketa baten gainean eragina izan duela aitortu zuen, «zaila izan da, baina iruditzen zaigu momentua dela».

Hori horrela, plana 2019an egindako lanketa «sakon» baten ondorio dela adierazi zuen Gotzone Larrartek. 2020-2023 tarteari begira ehun ekintza inguru biltzen ditu, «urtero hogeita bost bat», haren arabera, eta Gizarte Zerbitzuen eta aholkularitza zerbitzu baten esku egongo da horren dinamizazioa zein egikaritzea.

r Ruiz@hitza.eus

Sarbide berria AP-8tik

Asteazkenean zabaldu zuten AP-8 autobidetik Irunera sartzeko sarbide berria • Lotura zuzena du erdigunearekin, eta hiriko kaleetatik 2.500 auto kenduko dituela ziurtatu du aldundiak

– **IMANOL SAIZ** Irun

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, asteazkenetik (hilak 18) zabalik dago AP-8 autobidetik Irungo hirigunera (Oinaurretik) doan sarrera eta irteera berria. Oinaurreko lotuneak bide zuzena ahalbidetuko die ibilgailuei erdigunera. Mugikortasuna hobetzea du helburu sarbide berriak, izan ere, auto ilara handiak sortu izan dira azken urteotan eremu horretan. Obrek hamahiru hilabeteko iraupena izan dute, eta orotara, 9,25 milioi euroko aurrekontuarekin egin diote aurre lanei.

Lotune berrian errepide bikoitz bat, biribilgune bat, zubibide bat eta autobideko sarrerako eta irteerako erreiak eraiki dituz-

te. Lotura Oinaurreko biribilgunean hasten da, Elizatxo hiribide inguruan. Aldunditik diotenez, 166 metroko bide bat eraiki dute, noranzko bakoitzeko 3,2 metroko bi erreiko galtzada batek bananduta. Errepideak gehieneko %5,9ko malda du. Bidea 50 metroko diametroa duen biribilgune batera iristen da, eta hortik abiatzen da hirira bideratzeko sarbide berria.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Bide Azpiegitura diputatu Aintzane Oiartxek azaldu duenez, aurreikuspenen arabera, 2.500 autoren joan-etorriak zentrotik kentzea ahalbidetuko du bide azpiegitura berriak. Hori mar txan dela, erabiltzaileek Irun-Oinaurre tarteari dagokion kuota

ordaindu beharko dute soilik, Behobiarainoko tartea pagatu beharrean. Deskontua baliatzeneko Abiatu edo Via-T gailuak behar dira, eta arku bidezko ordainketa izango da: zati horretako lehen bidaiaren kostua 0,43 eurokoa izango da, eta 21. bidaiatik aurrera 0,11 eurokoa izango da prezioa.

Irunen 7.000 herritarrek dute Abiatu gailua ibilgailuan. Oiartxek nabarmendu duenez, neurri berri horiekin, AP-8an eta hirian mugitzeko tresna oso egokia izango da gailu hori, «Abiatu ezinbestekoa izango da Bidegik eskaintzen dituen deskontuei eta hileko mugari etekina atera nahi bazaie», gehitu du.

isaiz@hitza.eus

«Jasotako 1.500 sinaduren aurrean ez ikusiarena egin dute»

– **I. SAIZ** Irun

Artiako lagunek tinko jarraitzen dute Juan Thalamas Labandibar kaleko zuhaitzen mozketari ekiditeko borrokarekin. Azken egunotan udalarekin harremanetan jartzen saiatu dira, zehazki Jon Ugarte Hirigintzako arduradunarekin, baina oraindik erantzunik jaso ez izana salatzen dute, amorrutik. «Dena onartua eta planifikatua dute, zuhaitzen mozketari astelehenean (hilak 23) has dadin. Jasotako 1.500 sinaduren aurrean ez ikusiarena egin dute», adierazi dute taldeko kideek.

Erantzunik jaso ez arren, azken saiakera bat egingo dute Artiako Lagunek. Irungo Udalarik protesta kutsuko mezu elektronikoak bidaltzeko deia egin dute herritarren artean. «Bizilagunek udalarekin hitz egiteko eseri

nahi dugu, ez baitugu gure bizilagunak diren zuhaitzak moztea nahi», gehitu dute taldeak. Horregatik proposamenak eta kezak bidaltzeko eskaera luzatu diete irundarrei.

109 guztira

Dario Regoyos pasealekuko beste 55 zuhaitz ere arriskuan daudela salatzen dute azken asteotan Artiako lagunek, 109 dira denak. «Erabakia guztiz desorekatua» dela iritzi dio taldeak, «zuhaitz hauek sasoi onean daude, eta Artiako auzorako onuragarriak dira». Emandako azalpenaren arabera, GI-636 errepideko kutsadura xurgatzen dute, errepideko paisaia eta zarata ezkutatzen dituzte, «eta adreiluz eta porlanez beteriko auzoari berdegunea ematen diote», gehitu dute Artiako lagunek.



Atlantikaldia, egitaraua osatzeko proposamenak jasotzeko prest

-URKO ETXEBESTE

Errenteri-Orereta
Aurtengo Atlantikaldia irailaren 24tik 27ra egingo dute, *Ortzimugak* leloarekin. Zazpigarren ekitaldia du jaialdiak. Jada erreferente bihurtu den egitasmoaren lantaldea lanean ari da ahalik eta egitarau osoena planteatzeko, baina urtero bezala, herritarrei aukera man nahi diete euren proposamenak eta ekarpenak egin ditzaten egitaraua aberasteko. Hala, Atlantikaldiaren webgunean (*atlantikaldia.errenteria.eus*) egin daitezke egitaraua osatzeko proposamenak, apirilaren 3ra arte.

Baldintza zehatz batzuk izan behar dituzte proposamen horiek, honakoak: urtean zehar antolatutako ohiko ekitaldien errepikapena ez izatea, hots, berrikuntza bat barneratzea; herritarren parte hartzea sustatzea; eragile ezberdinen arteko elkarlanetik sortutakoa izatea; kaletarra izatea, herritarrei topagunerako aukera eskaintzea; eta kultur aniztasuna bultzatzea.

Jasotako proposamen guztien balorazioa egin ondoren, jaialdi-ko lantaldea maiatzaren 29a bai-

no lehen jarriko da igorleekin harremanetan. Informazio eta argibide gehiagorako posta elektronikoko helbide bat eskuragarri dago: *atlantikaldia@errenteria.eus*.

'Ortzimugak'

Zazpigarren edizioa *Ortzimugak* lelopean eraikiko dute «Ortzimuga elkargunea da, zeruak lurrarekin bat egiten duen puntua, egungo eta ilunabarren sorle-

kua, eguna eta gaua, perspektiba anitzak bateratzen diren lerroa», argudiatu dute antolatzaileek. Errenteriak 700 urte beteko dituenean, orainaldiaren eta etorkizunaren arteko inflexio puntua izan nahi du Atlantikaldiaren ortzimugak.

Gainera, jaialdiaren antolaketan zeharkakotasunaren kulturaren oinarritutako dute, eragile eta erakundeen arteko konexioak bilatuz.



Iazko Atlantikaldiaren emanaldietako bat, **Herrixkan**. REBEKA PARRAS



1842an eraiki zuten Done Eztebe parrokiako organoa. HITZA

Lacorrek ikertuko du parrokiako organoaren historia

Denis Lacorrek sei hilabeteko epea izango du lana egiteko • 1861ean erosi zuen Oiartzungo Udalak Cavaille-Coll etxeko musika instrumentua

-ERIK GARTZIA Oiartzun

Informazioaren zati handiena biltzen duen koronabirusaren gaiaz gain, bada besterik. Oiartzungo Udalak Manuel Lekuona ikerketa bekaren erabakiaren berri eman du. Aurten, Done Eztebe parrokiako Cavaille-Coll organoaren historia ikertzeko helburuarekin eman du diru laguntza hori. Denis Lacorrek jasoko du laguntza hori, beka emateko propio sortutako epaimahaiak hala erabakita. Organoetan adituak direnek osatu dute epaimahai hori.

Lacorrek sei hilabete izango ditu organoaren historia ikertzeko, eta horretarako 3.950 euroko diru laguntza jasoko du. Ikerketa lana euskaraz eta frantsesez aurkeztuko du Lacorrek.

Oiartzungo elizako Cavaille-Coll organoa 1842an eraiki zuten Parisen, eta 1861ean erosi zuen Oiartzungo Udalak. Orduetik dago San Esteban parrokiaren.

Fabrikazioa, ezaugarriak, egileak, tailerrak, konponketak, organojoleak, lekualdatzeak... ikertzea izango da Manuel Lekuona bekaren helburua, eta lan hori egin

beharko du, beraz, Denis Lacorrek sei hilabeteko epean.

Aristide Cavaille-Coll (Montpellier 1811-Paris, 1899) organo egile frantsesarenak dira Cavaille-Coll organoak. Organoak egiten zituen familia batean jaioa, hobekuntza ugari egin zizkion organoari, eta bere ospea, mundu osora zabaldu zen.

Prozedura

Joan den urteko abenduan zabaldu zuen bekara proiektuak aurkezteko epea udalak, eta urtarrilaren 31n amaitu. Hamar eta hogeitaz arkeko txostenak aurkeztu behar zituzten parte hartzaileek, eta bertan azaldu behar zituzten proiektuaren oinarriko nondik-norakoak: metodologia, aztergaiak, erabiliko zituzten iturburuak eta lana zein hizkuntzatan idatziko zuten.

Lacorren proiektua hobetsi du epaimahaiak. Organoegile eta zaharbertzaitzaile da, Frantziaren eta Euskal Herriaren toki askotako organoekin lan egindakoa, gainera: Donostiako Santa Maria eta San Bizente elizetan, Tolosan, Usurbilen, Azkoitian...

Hileko zozketak **Hk** HITZAKIDEen TXOKOA

62 TXINDOKIKO ITZALA ABENTURA PARKEA

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: 62]

Tel: 628 947 253 | 943 65 47 57
ABALTZISKETA
info@txindokikoitzala.com
www.txindokikoitzala.com/eu/



63 TXURI URDIN IRRISTAKETA LIBREA

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: 63]

Tel: 943 46 44 04
Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
www.eltxuri.com



64 LA PERLA

Bi lagunentzako *Forman* jartzeko *Talaso Zirkuitua*

[Eskaintza zenbakia: 64]

Tel: 943 45 88 56
Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
www.la-perla.net



65 ELKAR ARGITALETXEAREN 2 OPARI

IRTEERA ARGIAK (Enaut Elorrieta)
TXORIA NINTZELA (Xabier Etxeberria)

[Eskaintza zenbakia: 65]



Tel: 943 31 03 01
elkarargitalextea.eus

66 ENBATA JATETXEA

Bi lagunentzako bazkaria

[Eskaintza zenbakia: 66]

Tel: 943 64 10 54
HONDARRIBIA
jauregui@hoteljauregui.com
www.hoteljauregui.com



Zozketan parte hartzeko deitu: **902-82 02 40** telefonora edo sartu gure **webguneko HITZAKIDE TXOKOA** atalean, **martxoaren 26a baino lehen**. Saridunen izenak martxoaren 27an argitaratuko ditugu.

«Gaur egun artile sintetikoa da ohikoena»

MAQUI IZUZKIZA ARTISAUA

Artilearen prozesu osoa egitea da benetan gustuko duena Izuzkizak, eta beste eskulan batzuk egin arren, artilea izaten du ardatz.



HITZA

-REBEKA RUIZ Hondarribia
2020ko Emakumearen Astearen barruan, Emeki elkarteak antolatutako Hondarribiko emakume artisten erakusketan parte hartu zuen Maqui Izuzkizak. Artilea antzinako eran lantzea maitatu du Hondarribian egokitutako artisauak, artzainekin mantentutako harremanetik hasita, azken produktura arte. Prozesuaren nondik norakoen inguruan mintzatu da HITZA-rekin.

Zer nolako eskulanak egiten dituzu?

Batez ere artilearekin ari naiz lanean. Udaberri aldean artzainekin joaten naiz ardiei ilea mozteara, eta orduan biltzen dut artilea. Hori garbitu eta tindatu egiten dut. Ondoren, goruarekin haritu eta kardatzen dut. Niri, espresuki, benetan gustatzen zaidana da artilearen prozesu osoa egitea, garai batean egin zuten moduan.

Gaur egun artilea ez da era horretan lantzen?

Ez, gaur egun ez da oso errentagarria, sintetikoa da ohikoena. Izan ere, prozedura oso garesti eta neketsua da. Horrez gain, gaur egungo gizartea kolore oso deigarriak erabiltzera ohitu da, baita beste era batera jositako produktuak ere, eta ondorioz, artisautza mota honek balioa galdu du. Koloreei dagokienez, kurkumarekin, indigoarekin... lor-

tzen dituzun tonuak askoz ere suabeagoak dira, eta haritzea bera ere oso ezberdina da sistema tradizionalan.

Nola egiten dituzu tindagaiak?

Artilea egostea ezinbestekoa da, ahal izanez gero, kantitate handitan, eta kanpoan, ez etxe barruan edo leku itxi batean. Ondoren, finkatzailea gehitzen duzu, ozpina adibidez, eta azkenik zuhaitz edo lore hazi batzuk erantzen dizkio.

Artileaz gain, beste zerbaitez lantzen duzu?

Bai, artilea garestia denez itsasoa edo hondartzan jasotako beirarekin ere lan egiten dut. Denak Hondarribian jaso ditut! Ertzak borobilduak dituztenak, batez beste, berrogei urte eman dituzte uretan. Momentu honetan eguzki-lore erraldoi bat egiten ari naiz, artile eta beirarekin, baita sorgin berri batzuk ere aurretik egindakoak, kristoren arrakasta izan zutelako eta gehienak saldu ditudalako dagoeneko.

Nolatan hasi zinen artilea lantzen?

Japonian ikasi nuen ehuntzen. Itzuli nintzanean ardi merinoarekin artilea egiten ikasi nahi nuen, ez nuen artilea erosi nahi. Artzainak bilatzen hasi nintzen eta kontaktu batzuk egin nituen Kordoban, Aragoin... Haien zatere neketsua da, ezin dutelako artilea erre, eta ez dutelako ezer-tarako erabiltzen, beraz, pozik hartu ninduten.

Non saltzen dituzu zure produktuak?

Azoketan batez ere, eta orain sare sozialak prestatzen ari naiz.

rruiz@hitza.info

Hilabete honetan aurkeztu behar zuen taldeak bere lehen diskoa, baina larrialdi egoerak bultzatuta, bertan behera utzi behar izan dituzte emanaldiak, tartean, Hondarribian programatutakoa.

'Ixilik' lana zabaldu du Lanbroak, etxetik

-R. RUIZ Hondarribia-Irun

Lanbroa Bidasoko musika taldeak *Ixilik* (*Koronabirus version*) bere lehen singlea kaleratu du aste honetan sare sozialen bitartez. Emaitza txukuna lortu dute musikariek, kontutan izanda egoera. Izan ere, norberak eskura zuen instrumentuarekin, etxean sakelako telefonoarekin grabatutako lana da argitara emandakoa. Hilabete honetan aurkeztu behar zuen taldeak bere lehen diskoa, baina koronabirusak eragindako larrialdi egoera medio dena atzeratu behar izan dutela adierazi dute. Esaterako, Hondarribiko Kultur Etxean hilaren 27rako aurreikusitako kontzertua ere bertan behera uztera behartua ikusi dute bere burua taldekideek.



Lanbroak lehen diskoa aurkeztuko behar zuen hil honetan. HITZA

Egoera inoren gustukoa ez den arren, irudimena zorrozteko erabakia hartu dute hainbat artistek. Hala, Hondarribiko eta

Irungo musika talde honen kasuan ere, egoeraren aurrean erabaki bat hartzea egokitu zaie. Zentzu horretan argi hitz egin du

Elena Artiak. Grabatutako ikusentzuneak «era digitalean, online» moduan, eta ahal dugun bezala» egin dutela zehaztu du.

Hori horrela, «esperimentu» moduan grabatu dutela musika lan hau esplikatu dute, eta emaitza ez da edonolako izan. Youtube sare sozialean edo *bidaso.hitza.eus* webgunean ikus daiteke Lanbroa taldearen *Ixilik* bideoa.

IBILDI LUZKO TALDEA

Hondarribiko eta Irungo musikariek osatzen dute Lanbroa taldea. Hainbat taldetan ibiliak dira eta denen artean esperientzia zabala eskaintzen diote publikoari. Taldea osatzen dute, besteak beste: Karlos Zubikoak (baxua; Sagarroi, Lurra), Xabier Dolsak (bateria; Acido C, Lurra),

Eneko Lekuonak (gitarra akustikoa; 27, Pájaro Bobo), Mikel Goñik (gitarra elektrikoa; Zelig, La Bona Dea) eta Elena Artiak (ahotsa; Zelig, Layo Raser).

Ibilbide luzeko artistak dira denak, gustu eta estilo oso ezberdinetakoak gainera, baina momentu oro euskara kontuan hartuz lan egin dute. Haien arabera, soinu klasiko eta sustraizko soinu nuen magia, egungo softpoparekin fusionatzen du Lanbroak, «beti euskara ardatz hartuta».





-REBEKA RUIZ Hondarribia
Berrogei urte bete-ko ditu aurturten Marlaxka Xake Klubak. Berrogei urte xakearen zabalpena sustatzen Bidasoaldean; berrogei urte ere gizarteratze lanetan lagunduz. Osasun onean dagoela elkartea onartu du Goio Uriarte entrenatzaileak, «momentuz behintzat bai, dagoen egoera ikusita», erantzun du, umorez.

Ondo ezagutzen du kluba Uriartek. Txikitari hasi zen bertan jokatzeko, eta nazioarteko lehiatan aritu zen parte hartzen. Denborak aurrera egin ahala, jokalaritza unibertsitatara helitzean presidente kargua hartu zuen. 30 urte mantendu du ardura Uriartek, eta iaz utzi zuen kargua. Entrenatzailea da orain, Xake Eskolako arduraduna, eta tarteak, arbitro laguntzaile gisa ere ematen du bere denbora.

Urte luze hauetan zehar klubean denetarik bizitzea egokitu zaiela aitortu du, momentu «oso onak,» eta «oso txarrak». Parte hartzaile eskasia pairatu du klubak garaieran arabera, nahiz eta ixteko zorian ez direla inoiz egon adierazi duen: «Beti egon da norbait kluba bultzatzen». Garairik onenetan 90 bat gaztetxo mobilizatuta iritsi zen Marlaxka, eta herriko ikastetxe guztietan eskolak emateko ardura izan zuten klubeko kide-

Berrogei urte gizarteratu du Marlaxka Xake Klubak kirol hau Bidasoaldean. Belaunaldi ezberdinetako hamarnaka herritar lehiatzen dira bertan, ondo pasatzeko eta ahalik eta xake onena emateko helburuarekin.

Marlaxka izpiritua, inoiz baino biziago

ek. Gaur egun egoera onean daudela aitortu dute, eta garai batean martxan jarritako «Marlaxka izpiritua» bizirik dirauela baieztatu du Uriartek. Hiru helburu finkatu zituzten izpirituak bizirik jarrai zezan: «Helburu nagusia ondo pasatzea da; bigarrena, ahal den xakerik onena ematea bakoitza bere mailan; eta hirugarrena, lortzen dugun emaitzaren gaintik, esperientziarekin ikastea».

Boxeolarien antzera

Barrutik ezagutzen du xakearen diziplina Uriartek. Xakea kirol «poliedrikoa» dela sinetsita dago. «Ertz asko dauzka», gaineratu du. Gutxiengoak praktikatzen duen kirola dela argi duen arren, lehiakortasuna oso presente dagoela uste du: «Ikerketek diote goi mailako maisuek izaten duten kontsumo energe-

tikoa lehiatzerakoan, boxeolariena antzekoa dela». Zentzu horretan, mundu mailako lehiaketetan parte hartzen duten jokalariek presioarengatik sufritzen

Garai batean hasitako «Marlaxka izpiritua» bizirik dirauela dio Uriartek

duten kontsumo energetikoa «izugarria» dela zehaztu du arduradunak, «kiloak galtzera iritsi daitezke».

Kirolarekin harremandu ohi den lehiakortasun horrez gain, alderdi pedagogikoa nabarmendu du Uriartek. Hezkuntza sistemak berak jorratzen dituen arlo asko ere lantzen dira xakearen bitartez, hala nola, arreta, kontzentrazioa, frustrazioa... «Horregatik da hain tresna berezia»,

ohartarazi du entrenatzaileak. Hala, xakearen erabilera terapeutikoa goraiatu du arduradunak. Klubean gaitasun ezberdinak dituzten jokalariek aritzen dira lehiatzen: «Gizarteratzeko eta ondo pasatzeko bide bat da gurea».

Hori horrela, lau maila ezberdinetan lehiatzen diren lau talde daude aurtengo denboraldian Marlaxkan. Gorengo mailako taldeak beste kategoria bat igotzea aurreikusten zuten arren, gauza nahi bezala ez zaiela joan onartu du entrenatzaileak. Ez da larritu, hala ere, erantzunarekin, eta helburuak bete dituztelako kontent agertu da.

Bigarren mailako bi taldeen helburua, bestalde, maila mantentzea zen, nahiz eta horietako batek kategoria mantentzeaz gain, hurrengora igotzeko kanporaketak jokatzeko ari den.



Beste taldeak, ordea, ziurrenik maila galduko duela zehaztu du Uriartek, baina helburuak bete, ez duela axola ziurtatu du. Azkenik, gaztetxoek eta adineko jendeak osatutako taldea dago, «ondo pasatzera joaten direnak, lehiaketarekin harremana lortzera».

Lehia baino harago

Hondarribiarrei begira hamaika jardueraren antolatzen ditu Marlaxkak urte osoan zehar, besteak beste: Mendelu zein Maddalen auzoko jaietan, eta Erdi Aroko Azokan Bidasoko Eskola Kirola jaialdia; hondar kirolak uda garaian Prebentzio Komunitarioarekin; edota gaztetxo zein adinekoei zuzendutako Aste Santuko, udaberriko, jaietako eta Gabonetako xake jaialdiak.

40. urteurrenari begira ospakizun bereziren bat antolatu nahi dutela iragarri du Uriartek. Momentuz, baina, itxoierra gonbidatu ditu herritarrak. Izan ere, aste honetan egitekoa zen zuzendaritza batzarra eta datorren hilerako aurreikusitako jarduerak guztiak bertan behera gelditu dira.

rruiz@hitza.eus